



KIMIOTERAPIA HARTUKO DUTEN PAZIENTEENTZAT

**ONKOLOGIA MEDIKOKO
KANPO-KONTSULTAK
DONOSTIA OSPITALEA**

D O N O S T I A O S P I T A L E A

IDOH ONKO-HEMATOLOGIAKO
DONOSTIA INSTITUTUA
INSTITUTO DONOSTIA
DE ONCO-HEMATOLOGÍA

H O S P I T A L D O N O S T I A

KIMIOTERAPIA HARTUKO DUTEN PAZIENTEENTZAT AURKIBIDEA

Zer da Kimioterapia? 3

Non emango didate Kimioterapia? 4

Noiz itzuli behar dut? 5

Laguntza Psikologikoa 6

Etxean sortzen diren zalantzak 8

ZER DA KIMIOTERAPIA?

Tratamendu-mota bat da, zainen bidez edota aho bidez medikamentuak ematean datzana.

Farmako horiek gorputz atal ia guztietara iristen dira, eta zelula gaixo eta sanoak hiltzen dituzte. Kontrako eraginak sortzen dituzte, intentsitate eta maiztasun desberdinekoak, pertsona bakoitzaren terapia farmakologikoaren erantzun indibidualaren eta emandako tratamendu kopuruaren arabera.



NON EMANGO DIDATE KIMIOTERAPIA?

Kimioterapia anbulantearekin tratamendua hartzeko etorriko zara ospitalera eta, bukatu ondoren, etxera joan ahal izango zara.

Komenigarria da, lehenengo aldia denean behintzat, zure konfiantzako pertsona batekin etortzea.

Eguneko Ospitale Onkologikora etorri beharko duzu kontsultan esan dizuten egun eta orduan. Eguneko Ospitalea Gipuzkoa eraikineko –lehenengo Ospitale Probintziala– bigarren solairuan dago (2. B).

Eguneko Ospitale Onkologikora iristeko modu onena hurrengoa da:

4



1 Gipuzkoa eraikinera Kanpo-kontsultetako atetik sartu (egurrezko ateak)



2 Halletik pasa eta informazio-gunea albo batera utzita segi aurrera



3 Fondoko igogailuraino joan (eskaileraren ondoan)



4 Igo 2. solairura eta Erizaintzako kontrolera joan.

Erizaintzako informazio-mahaian erizain batek datu pertsonalak hartuko dizkizu eta azalduko dizu zein izango den jarraitu beharreko prozedura. Lehenengo aldia bada, zure tratamenduaz eta prozesu osoaz informazio zehatza emango dizu.

Onkologiako zerbitzu honetan 6 gela daude, eta bi egongela handi, tratamenduak jartzen diren jesarleku eraisgarriak dituztenak. Mostradorean izen-abizenak eman ondoren, **lagundu egingo dizute jesarleku edo ohe batera** (tratamendu motaren arabera).

Bertan erizainak kateterra ipiniko dizu (zain batetik) eta farmakoak bertatik pasaraziko ditu, medikuak jarritako jarraibideen arabera. Gomendio batzuk ere emango dizkizu.

Tratamenduan zehar dituzun zalantzak eguneko ospitaleko profesionalei galde diezazkiekezu. Halaber, edozein molestia izanez gero, erizainari esan iezaiozu. Ospitalean beti dago, gutxienez, mediku bat, edozein arazori aurre egiteko.

Tratamenduaren iraupena zure gaixotasunari dagokion kimioterapiako eskemaren arabera izango da.

Tratamendua bukatu ondoren, etxera joan ahal izango zara, eman dizkizuten gomendioak kontuan harturik eta itzuli behar duzun hurrengo eguna zein den jakinda.

Etxera joateko anbulantzia behar izanez gero, esan unitateko langileei.

NOIZ ITZULI BEHAR DUT?

Kontsultako erizainak hitzorduetako txartelean apuntatuko dizkizu eguneko ospitalera etorri beharreko tratamendu-egunak eta medikuarekin duzun hurrengo kontsulta-eguna.

Kimioterapiako zikloak aldizka errepikatzen dira. **Iraupena eta maiztasuna medikuak agindutako tratamendu-eskemaren araberakoak dira.** Medikuak edota erizainak emango dizute horren berri.

Bisita mediko bakoitzaren aurretik, odol-analisia egin behar dizute zure osasun-zentroan, kontsulta-egunean medikuak emaitzak ospitalean eduki ahal izateko. Horretarako erizainak bolantea prestatuko dizu. Anisiaz gain, beste probaren egin behar bada, kontsultan esango dizugu.

Kimioterapia-mota batzuk ziklo luzekoak direnez, tratamenduaren erdiko zikloan analisia egin behar izaten da. Ziklo erdiko analisirako, ez da bisita medikorik behar. Anisien emaitza guk kontsultatzen dugu zuzenean, eta, ondoren, telefonoz deituta behar diren jarraibideak emango dizkizugu. Zure kasua hori bada, zehatz-mehatz esplikaturiko dizugu hori kontsultan.

Garrantzitsua da zure organismoa baldintza onenetan egotea, hurrengo kimioterapia-saioa hartu aurretik. Horregatik egiten dira kontrol analitikoak.



LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

Badakigu gaixotasunaren diagnostikoak, kimioterapiako saioek eta onkologiako kontsultetara egindako bisitek inpaktu gogorra dakartela paziente zein familiartekoengan.

Horregatik jakin behar duzu, laguntza psikologikoa behar baduzu, psikologo talde baten lankidetzaz dugula, bai zure edota zure familiartekoen laguntzarako, prozesuaren edozein unetan.

Horren beharra baduzu(e) esaguzu(e), haiekin harremanetan jarri ahal izateko.

ETXEAN SORTZEN DIREN ZALANTZAK

Zerbitzu honetan lan egiten dugun pertsonak zu laguntzeko gaude. Gaixotasunari edo tratamenduari lotutako zalantzak edo kezak argitzen saiatuko gara, laguntza eta informazioa emanez.

Medikuarekin duzun hitzordura edo kimioterapiako tratamenduegunean ezin bazara etorri, esaguzu, falta gabe.

Kasu horretan deitu ezazu erizaintzako kontsultetako telefonora

**Onkologiako Kontsultetako
Telefona**

943 006 002

Telefonoz deitzeko ordutegi onena:

08:00etatik 10:00etara

eta 13:30etik 15:00etara